



RUBIO, Iratxe; BENITO DEL VALLE, Amelia; EZKURDIA, Gurutze; DE ALBA, Baikune; BIOTA, Itsaso. Fortalecimiento de la cultura nasa y aprendizaje comunitario en el resguardo de Tóez-Caloto. Pautas para profundizar en la competencia lingüística en nasa yuwe desde la ecología, la música, la historia y la comunicación. Leioa: Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua - Servicio Editorial, 2024, modo de acceso: World Wide Web, 94 p., fotografías, índice, bibliografía. ISBN: 978-84-1319-626-8.

Argitalpen hau Nasa Yuwe - 23 proiektuan parte hartzen duten ikertzaileen diziplinarteko taldeak egin du, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Campus Bizia Lab-ek babestu du. Campus hori Erasmus University Educators for Sustainable Development proiektutik eratorria da, Garapen Iraunkorrerako Unibertsitate Lankidetzaren 2022-23 deialdian kokatua dago, Garapen Zientifiko eta Sozialerako eta Transferentziarako Errektoreordetzaren Iraunkortasun eta Gizarte Konpromisorako Zuzendaritzak deitua.

Hizkuntzaren presentzia ezinbestekoa da komunitate baten bizitza sozialean, batez ere honen erreprodukzioa bideratu ahal izateko. Erabilera linguistikoa bermatzen du bere biziraupena eta osasuna. UNESCOk Kultura Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioa 2003an Parisen ospatu zuen 32. batzarrean, agirian jarri zituen Ondare Immaterialaren ziurgabetasuna, ez erabiltzearen, txikitzearen eta era berean, babesteko behar diren baliabideen urritasuna.

Era berean, kulturen azpi-oinarria hizkuntzak izan arren, hauek Konbentzioaren xedapenetan jaso gabe daudela agi utzi zuen. 2. artikuluan hizkuntzak Ondare kultural inmaterialaren bitartekari bezala deskribatuak dira. Garai berean, UNESCO «Arriskuan dauden Hizkuntzen Babesa» programari buruzko Adituen Nazioarteko Bilerak hizkuntza bakoitzak herri baten eza-gutza eta jakituri kultural bakarra sinbolizatu eta irudikatzearen garrantzia sakondu zuen. Hizkuntza bat galtzeak, gainera, identitatearik eza, memoria kolektiboa ahaztea eta herri indigenen kasuan, eskualdearen etorkizuneko garapenerako funtsezkoa den eza-gutza galtzea dakar.

2019an Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea ospatu ondoren, UNESCOk Munduko Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Hamarkada izendatu du 2022tik 2032ra bitarteko aldia. Helburua da hizkuntza indigena askoren egoera ikusaraztea eta baliabide guztiak aktibatzea, hizkuntza indigenak kontserbatu, biziberritu eta sustatzeko (UNESCO, 2023). Egoera horretan dagoen hizkuntza indigenetako bat nasa yuwe-a da.

Rieks Smeets-en arabera (2005), hizkuntza baten bizitasuna faktore askoren mende dago eta hauen artean, irakaskuntzan hizkuntza erabiltzeko material didaktikoen eskuragarritasunaren mende, edo komunitateko kideek beren irakaskuntzarako duten jarreraren mende ere. Bi printzipio horiek oinarritzat hartuta, azpimarratu behar da argitalpen honek nasa yuwe hizkuntza indigenaren hizkuntza biziberritzeko beharrari erantzun diola. Nasa herriaren Toe-z-Caloto Gordelekuan Hizkuntzaren Etxea –Kwe'sx we'wenxi yat– sortu dute eta komunitatearen ehunaren parte da, eta, haien kultura eta hizkuntza indartzea sustatzen du. Jarraian garatuko diren orrialdeetako edukiaren helburu nagusiak dira hauen eskakizun eta behar kosmogoniko eta linguistikoak erantzutea. Hau da, hemen dauden atalak nasa yuwe hizkuntzaren ikaskuntza komunitari-ora bideratuta daude, –Kwe'sx we'wenxi yat Hizkuntzaren Etxea buru dutela– eta Toe-z-Calotoko babeslekuaren testuinguru soziokomunitario linguistikoari erantzuten diote.

Horien edukien garapena landu aurretik, jorratu diren gaien eta edukien lanketa diziplina anitzeko ikuspegitik egin dela aipatu behar da. Europar Batasuneko ikaskuntza-metodologian sustraituta, landu eta tratatzeak Europako Kontseiluaren hizkuntza-politikaren arloko jarraibide

Cita bibliográfica recomendada para esta reseña:

RUBIO ARDANAZ, Eduardo

Fortalecimiento de la cultura nasa y aprendizaje comunitario en el resguardo de Tóez-Caloto...

(Iratxe Rubio, Amelia Benito del Valle, Gurutze Ezkurdia, Baikune De Alba, Itsaso Biota),

Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía, nº 42, 2024, pp. 111-112,

<http://dx.doi.org/10.13140/RG.2.2.20994.18887>

deak errespetatzen ditu, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan jasotakoak. Gainera, material didaktikoa sortzeak konpromisoa hartzen du NBEren 2023 Agendarekin (2015) eta Garapen Jasan- 9 2. S garriko Helburuekin. Zehazki, 4. GJHrekin, Kalitatezko Hezkuntza, 5. arekin. Genero berdintasuna, 10. Desberdintasunak murriztea, eta 17+1 edo 18. Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna.

Horrela, bada, lehenik eta behin, Martha Helena Corrales ikertzaile eta hizkuntza indigenetan adituaren hitzaurrea dago. Caucaoko Unibertsitateko irakaslea da, Kolonbiako nasa herri indigenak bizi duen egoera eta testuingurua lantzen du, eta nasa yuwe hizkuntzaren errealitate soziolinguistikoaren ikuspegi globala ematen du. Ondoren, Casa de la lengua-Kwe`sx we`wenxi yat (2016) Marytza Pachó Hurtadok, erakunde horren sortzaileetako bat eta nasa yuwe hizkuntzako komunikazio-gaitasuneko Caucaoko Unibertsitateko irakasleak, bere antolamendua, helburuak, ekintzak eta Erkidegoko hezkuntza-proiektuaren ikaskuntza-prozesuak azaldu ditu.

Ondoren, jardueren ekoizpen-ingurunea testuinguratzen da, eta komunitate- hezkuntzaren ikuspegi metodologikoa, eta irakaskuntza-metodologia aktiboak eta komunikazio-gaitasuna lantzen dira eta era berean, nasa yuwe hizkuntzaren ikaskuntzako hizkuntza-mailak azpimarratzen dira, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera. Jarraian, jarduera soziolinguistiko etnoedukatiboen egitura eta edukia azaltzen dira, eta gaiarekin lotutako eduki bibliografiko bat proposatzen da.

Sarrerako atal hau amaitu baino lehen, garrantzitsua da azpimarratzea Hizkuntzaren Etxeak –Kwe`sx we`wenxi yat– Toto-Calotoko babeslekuan nasa yuwe hizkuntza biziberritzeko eta sendotzeko egin nahi dituen jarduerak, indigenen edozein hizkuntza-gaitasunetara egokitu daitezkeela. Horrela, bada, gaztelaniaz idatzitako hizkuntza-praktikak kultura eta hizkuntza-egokitzapena eskatzen ditu, kasu honetan, nasa kulturara eta nasa yuwe hizkuntzara.

Azkenik, argitalpen hau Nasa Yuwe - 23 proiektuan parte hartzen duten ikertzaileen diziplinarteko taldeak egin du, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Campus Bizia Lab-ek babestu du. Campus hori Erasmus University Educators for Sustainable Development proiektutik eratorria da, Garapen Iraunkorrerako Unibertsitate Lankidetzaren Proiektuen 2022-23 deialdian kokatua dago, Garapen Zientifiko eta Sozialerako eta Transferentziarako Errektoreordetzaren Iraunkortasun eta Gizarte Konpromisorako Zuzendaritzak deitua.

*Eduardo Rubio Ardanaz
Departamento de Psicología Social - Gizarte Psikologia Saila
Facultad de Educación de Bilbao - Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU*